EELIF Berrikuntza Funtsaren maileguen finantza-gastuetarako jasotzen den diru-laguntza ofizioz izapidetuko da, sinatzen den mailegu bakoitzari buruzko informazioa jasotzen denean, Elkargi SGR erakundearekin sinatutako lankidetza-hitzarmenean xedatutakoarekin bat. Jakinarazpena 2020ko ekainaren baino lehenago egin beharko da.

### Artículo 21- Plazo de presentación de las solicitudes

La solicitud de ayuda por gastos financieros de préstamos del “Fondo de Innovación FILPE” se tramitará de oficio una vez se reciba información sobre cada préstamo suscrito, en virtud del Convenio de colaboración con Elkargi SGR. Dicha comunicación deberá realizarse con anterioridad al 30 de junio de 2020.

### 22. artikulua- Emateko prozedura

5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutako norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira kapitulu honetan arautako diru-laguntzak.

Eman nahi diren diru-laguntzen xedeak berak justifikatzen duen norgehiagokarik gabeko araubideaz baliatzea laguntzok emateko. Askotariko egoerak gerta daitezke eskatzaileen artean, eta horrek zaildu egiten du ebaluazio-irizpide objektibo eta homogeneoak finkatzea aurkezten diren eskabideen artean lehentasunak ezartzeko.

Dekretu honen ondorioetarako, hau jotzen da norgehiagokarik gabeko prozeduratzat: eskariak jaso ahala banatzea diru-funtsak. Hala, bada, eskabideek mailegu kontratuaren izenpetze dataren arabera ezarriko da eskarien arteko lehentasuna, eta, deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurrekontuko hornidurek ahalbidetzen duten bitartean emango dira laguntzak.

### Artículo 22- Procedimiento de concesión

Las subvenciones reguladas en este capítulo se concederán en régimen de libre concurrencia, según lo previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005.

Se justifica la concesión en régimen de libre concurrencia por el objeto de la subvención a otorgar. La diversidad de supuestos que se pueden dar dificulta establecer criterios de valoración objetivos y homogéneos que permitan establecer una prelación entre las solicitudes presentadas.

Se entiende, a los efectos del presente decreto como libre concurrencia el procedimiento mediante el cual se distribuyen los fondos según se reciban las peticiones, atendiendo al orden prioritario de fecha de suscripción del contrato de préstamo, siempre que reúnan todos los requisitos establecidos en la convocatoria y hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

### 23. artikulua- Aurkeztu beharreko agiriak

1. Diru laguntza eskatzeko eta justifikatzeko agiri guztiak Elkargi EEEk aurkeztuko du, helburu horretarako sinatu den lankidetza-hitzarmenean

### Artículo 23- Documentación a presentar

1. La documentación para la solicitud y justificación de la ayuda será remitida por Elkargi SGR en virtud del Convenio de Colaboración

xedatutakoarekin bat. Horren arabera, Elkargi EEEk Bizkaiko Foru Aldundiari honako hau jakinaraziko dio:

a) 2i egitarauko enpresa onuradunek "EELIF Berrikuntza Funtsa"rekin izenpeturiko mailegu bakoitza, ezaugarriak barne (printzipala, amortizatzeko era...).

b) Sei hilean behin jakinaraztea "EELIF Berrikuntza Funtsa"rekin izenpetu den eta finantza-gastuetarako diru-laguntza duen mailegu bakoitzaren amortizazio-taula eguneratua, enpresek ordaindutako diru-kopuruak eta ixteko aurreikuspena barne.

2. Dena dela, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta beraren jarraipena egin ahal izateko. Era berean, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak erakunde eskatzaileari bisitak eskatu ahal izango dizkio proiektua egin bitartean eta amaitu ondoren, jarraipen egokia egiteko.

24. artikulua- Diru-laguntza ordaintzea

EELIF Berrikuntza Funtsaren maileguetarako finantza-gastuei dagozkien diru-laguntzak Elkargi EEEri emango zaizkio zuzenean, sinatutako maileguei buruzko informazioa jaso ondoren. Hark ez dizkio jasanaraziko gastuok erakunde onuradunari, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2019ko otsailaren 26ko erabaki bat dela bide sinatutako hitzarmenean xedatutakoarekin bat.

Elkargi EEEri ordainketa egiteko, onuradunak egunean beteta izan behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ez bada, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, edo diru-laguntza kobratzeko eskubidea galdutzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 38. artikuluan

suscrito a tal efecto, según el cual Elkargi SGR deberá comunicar a la Diputación Foral de Bizkaia:

a) Cada préstamo suscrito por empresas beneficiarias del programa 2i con el "Fondo de Innovación FILPE", con sus características (principal, forma de amortización...).

b) Semestralmente el cuadro de amortización actualizado de cada préstamo suscrito con el "Fondo de Innovación FILPE" que cuente con subvención para gastos financieros, incluyendo las cantidades abonadas por las empresas y la previsión de cierre.

2. En todo caso, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial podrá requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y seguimiento de la solicitud presentada. De igual modo, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial podrá requerir a la entidad solicitante visitas en el transcurso y a la finalización del proyecto, para su adecuado seguimiento.

Artículo 24- Pago de la subvención

Las subvenciones correspondientes a gastos financieros de préstamos del "Fondo de Inversión FILPE" se entregarán directamente a Elkargi SGR tras la recepción de la información sobre los préstamos suscritos, de modo que ésta, no repercutirá dichos gastos sobre la entidad beneficiaria, en virtud de lo dispuesto en Convenio suscrito mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia de 26 de febrero de 2019.

Para proceder al pago a Elkargi SGR, la entidad beneficiaria deberá estar al día de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social. En caso contrario, se procederá a exigir el reintegro o declarar la pérdida del derecho al cobro con sujeción al procedimiento establecido en el artículo

ezarritako prozeduraren arabera.

38 de la Norma Foral 5/2005.

# II titulua: diru-laguntzentzako xedapen komunak

## 25. artikulua- Diru-laguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak

1. Honako hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen gastuak: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatu direnak, betiere epearen barruan egin badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiete.

2. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen kostuak ez dira onartuko baldin eta merkatuan duten balioa baino handiagoak badira.

3. Edonola ere, honako gastu hauek ez dute diru-laguntzarik jasoko:

a) Diru-laguntzaren xedea den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.

b) Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Ondorio horietarako, joko da lotura dagoela Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluak eta Merkataritzako Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan.

4. 5/2005 Foru Arauaren 29.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondasun inbentariagarriak erosteko, eraikitzeko, zaharberritzeko edo hobetzeko kasuetan, pertsona onuradunak ondasunak diru-laguntzaren xede zehatza betetzeko bideratzeko epea hamar (10) urtekoa izango da, erregistro publikoan inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, eta bost (5) urtekoa, gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publikoan inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, egoera hori aipatu egin beharko da

# Título II: Disposiciones comunes a las subvenciones

## Artículo 25- Criterios generales para la consideración de gastos subvencionables

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

2. No se admitirán costes de adquisición de gastos subvencionables que sean superiores al valor del mercado.

3. En cualquier caso, no serán subvencionables:

a) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención y/o no se realicen en el plazo establecido en cada convocatoria.

b) Los gastos en los que exista vinculación entre solicitante y entidad proveedora, se entenderá que existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 42.3 de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto Sobre Sociedades, y los artículos 42 a 49 del Código de Comercio.

4. Atendiendo a lo establecido en el artículo 29.4 de la Norma Foral 5/2005 en el supuesto de adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables el período durante el cual la persona beneficiaria deberá destinar los bienes al fin concreto para el que se concede la subvención será de diez (10) años en caso de bienes inscribibles en un registro público y de cinco (5) años para el resto de bienes. En el caso de bienes inscribibles en un registro público, deberá hacerse constar en la escritura esta

eskrituran, bai eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ere, dagokion erregistro publikoan erregistratu ere.

circunstancia, así como el importe de la subvención concedida, debiendo ser objeto estos extremos de inscripción en el registro público correspondiente.

### 26. artikulua- Gastuen egokitzapena

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen batez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, diru-laguntzaren oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

### Artículo 26- Ajuste de gastos

Si el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial considera que el presupuesto de gasto es excesivo en comparación con el coste medio de gastos de análoga naturaleza, podrá reducir la base subvencionable en la cuantía correspondiente a lo que se considera un gasto ajustado y proporcionado

### 27. artikulua- Diru-laguntza metaketa

Foru dekretu honetan jasotako laguntzek edo diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 352. Zenbakikoan, eta EE Itunaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, arautegi hori ez betetzeak, erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

En el caso de empresas que reciban ayuda para los gastos financieros de préstamos con el “Fondo de Innovación FILPE”, el 10% del principal de los préstamos computa como ayuda minimis, dado que cuenta con aval de Elkargi, reafianzado por entidades públicas.

### Artículo 27- Acumulación de ayudas

Las ayudas o subvenciones contempladas en el presente Decreto Foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) nº1407/2013 de la Comisión de 18 de diciembre de 2013 relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (publicado en el Diario Oficial de la Comunidad Europea DOUE 352 el 24 de diciembre de 2013) y en consecuencia el incumplimiento de esa normativa, podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para la empresa infractora. Según lo establecido por la Unión Europea, la ayuda total de minimis concedida a cualquier empresa no deberá exceder de 200.000 euros en un período de tres ejercicios fiscales.

En el caso de empresas que reciban ayuda para los gastos financieros de préstamos con el “Fondo de Innovación FILPE”, el 10% del principal de los préstamos computa como ayuda minimis, dado que cuenta con aval de Elkargi, reafianzado por entidades públicas.

### 28. artikulua- Diru-laguntzen bateragarritasuna

Dekretu honen itzalpean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu beragatik ematen dituztenekin. Halere, 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, emandako diru-

### Artículo 28- Compatibilidad de las subvenciones

Las ayudas otorgadas al amparo del presente Decreto serán compatibles con cualesquiera otras provenientes de otros Organismos públicos o privados asignadas para el mismo objeto. No obstante, conforme a lo establecido en el artículo

laguntzaren zenbatekoa inola ere ezin da izan, bera bakarrik edo beste batzuei batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

18.3 de la Norma Foral 5/2005, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras, supere el coste de la actividad subvencionada.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren beste plan, programa edo jarduera-arlo batek diruz lagundutako gastuek ezin izango dute diru-laguntza jaso.

No serán subvencionables los gastos ya subvencionados por otros planes, programas o áreas de actuación del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Nolanahi ere, diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari era frogagarrian jakinarazi beharko diote beste diru-laguntzarik jaso duten, egun batean edo bestean eman. Hala balego, horrekin batera egin den diru itzulketako gutunaren kopia bidaliko da. Horrek guztiak hala behar du, 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako. Horrela, beraz, beste diru-laguntzen edo laguntza ekonomikoen zenbatekoak zenbatetsi eta, proiektua finantzatzeko ehunekoa mantentze aldera, diru-laguntza esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da. Jakinarazpen hau jakin eta berehala egin beharko da eta, edozein kasutan, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

En cualquier caso, las entidades beneficiarias de las subvenciones tendrán la obligación de comunicar de modo fehaciente al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial la concesión de cualquier tipo de ayuda, independientemente de la fecha en que la misma haya sido concedida, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso hubiera realizado. Todo ello a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4 de la Norma Foral 5/2005, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos recibidos.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila beste finantzatzaileekin harremanetan jarri ahalko da baterako finantzaketa adosteko.

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial podrá ponerse en contacto con el resto de partes financiadoras para llegar a un acuerdo de cofinanciación.

### 29. artikulua- Laguntzaren publizitatea

Dekretu honen itzalpean emandako laguntzen onura jasotzen duten eskabideek jasotako laguntzari publizitatea eman beharko diote, 5/2005 Foru Aginduko 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proiektuaren finantziazioaren izaera publikoari buruzko publizitate egokia –euskarri informatikoetan zein bestelakoetan– egiteko, esaldi hau sartu beharko da: “Berrikuntza eta Inbertsio aurreratua Sustatzeko 2i 2019ko

### Artículo 29- Publicidad de la ayuda

Las solicitudes que resulten beneficiadas por ayudas concedidas al amparo de este Decreto, deberán dar publicidad del apoyo recibido, de acuerdo a lo indicado en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005.

La adecuada publicidad del carácter público de la financiación del proyecto, en soportes tanto informáticos como de cualquier otro tipo, deberá limitarse a la inclusión de la siguiente expresión: “Este proyecto ha sido financiado por la

Planaren barruan". Beren beregi debekatuta dago beste edozein esaldi edo irudi erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiteko

Diputación Foral de Bizkaia dentro del Plan 2i de Promoción de la Innovación y la Inversión avanzada 2019". Queda expresamente prohibida la utilización de cualquier otra leyenda o imagen mediante la cual se haga referencia a la Diputación Foral de Bizkaia

### 30. artikulua- Diru-laguntzen argitaratzea

Diru-laguntzak ematen diren urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa bukatu aurretik, ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

FEDER Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren arautegiari jarraituz, dekretu honetako laguntzak onartzeak berekin dakar datuak zerrenda publiko batean sartuko direla onartzea: alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko FEDER 2014-2020 programa eragilearen eragiketen zerrendan.

### Artículo 30- Publicación de las subvenciones

Se publicará un extracto de la resolución en el Boletín Oficial de Bizkaia antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión.

De acuerdo con la normativa del Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER), la aceptación de las ayudas a que se refiere el presente Decreto supone la aceptación de la inclusión en una lista pública de operaciones del Programa Operativo FEDER del País Vasco 2014-2020.

## III titulua: Diru-laguntzak esleitzeko prozedura

### 31. artikulua- Eskabideak nola aurkeztu

Eskabidea, behar bezala eta oso-osorik beteta, Internet bidez aurkeztu behar da. Horretarako, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian (www.bizkaia.eus/sustapena) bere atari birtualari dagokion atala erabili behar da.

Horrela bada, eskabideak bide telematikoetatik aurkeztu behar direnez, empresa interesdunek aldez aurretik sinadura elektronikoa izan beharko dute (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa. Hauxe eskatu beharko dute Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean (Orueta Apezpikua kalea, 6., Bilbo). Alta prozeduraren gaineko informazioa eskuragarri dago Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian.

## Título III: Procedimiento de concesión de las subvenciones

### Artículo 31- Presentación de las solicitudes

La solicitud, debidamente cumplimentada en todos sus términos, deberá presentarse por Internet, en la página web del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial (www.bizkaia.eus/sustapena), en el apartado correspondiente a su oficina virtual.

De acuerdo con lo anterior, la presentación telemática de las solicitudes exigirá que, con carácter previo, las interesadas dispongan de firma electrónica (Izenpe, DNI electrónico, FEA...) o del certificado electrónico B@kQ, que podrá ser solicitado en las oficinas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial sito en la calle Obispo Orueta, número 6, de Bilbao. Información sobre el procedimiento de alta está disponible en la citada página web del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da erakundea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren erakundeen erregistroan alta emanda egotea (61/2010 Foru Dekretua, apirilaren 27koa. BAO 80 zk., 2010.eko apirilaren 30ekoa). Egoera horretan ez badago, erakundeak inskribatzeko eskaera bete beharko du, diru-laguntza eskabidea izapidetu baino lehen.

Para la presentación de la solicitud será requisito que la entidad figure dada de alta en el registro de entidades del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial (Decreto Foral 61/2010, de 27 de abril. BOB nº 80, de 30 de abril de 2010). En caso de no encontrarse en esta situación, la entidad deberá cumplimentar la solicitud de inscripción como paso previo a la tramitación de la solicitud de la subvención.

Nolanahi ere, instrukzioaz arduratzen den organoak elkarrekin zerikusia duten eskabideak taldekatu edo banakatu ditzake, eskabideok ondo aztertu eta ebaluatzeko eta diru-laguntzaren xedeko jarduerara ondoen egokitzen den egitate lagungarria zehazteko neurri egokia dela irizten badio.

En todo caso, el órgano instructor podrá agrupar o desglosar aquellas solicitudes relacionadas entre sí, en cuantas considere oportunas para su correcto análisis y evaluación, así como determinar el hecho subvencionable que mejor se adecue a la actividad objeto de subvención.

Eskatzaileak, diru-laguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena ematen dio organo instruktoreari, onuraduna izateko baldintzen inguruabarren egiaztapena zuzenean lor dezan; hori, Diru-laguntzen Erregelamenduaren 17.1. artikuluan eta Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean 3/2018 Lege Organikoan) xedatutakoarekin bat etorriz, telematikako ziurtagiri egokien bidez egin daiteke.

La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización de la solicitante para que el órgano instructor pueda obtener de manera directa la acreditación de las circunstancias para determinar la condición de entidad beneficiaria, lo que podrá realizarse a través de los correspondientes certificados telemáticos, en los términos establecidos en el artículo 17.1 del Reglamento de Subvenciones, y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Personal y Garantía de los Derechos Digitales (en adelante Ley Orgánica 3/2018).

Eskabideekin batera 12. artikuluan ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira; arestian aipatu bulego birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabiliko da.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se determina en el artículo 12; utilizándose el sistema de anexado de documentación existente en la oficina virtual anteriormente citada.

### 32. artikulua- Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak

### Artículo 32- Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión

Diru-laguntzetarako eskaerak Berrikuntza Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta, eskaerok ebazteko, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko arduradunak esanbidezko ebazpena emango du, Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak hala

Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Innovación, órgano instructor, y serán resueltas mediante resolución expresa de la persona titular del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial a propuesta de la Dirección General de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico.

proposaturik.

Emakida prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak osatzerako orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkaritza ordezkatuta dagoela; horrek esan nahi du bi sexuek ordezkariren bat eduki beharko dutela, 4/2005 Legearen 20. artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

En la composición de los órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión se tendrá en cuenta la necesidad de una representación equilibrada de ambos sexos, entendiendo que ello supone que al menos ambos estén representados, tal y como está previsto en el artículo 20 de la Ley 4/2005 y el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018.

### 33. artikulua- Txostenaren instrukzioa

Eskabideen espedienteak honelaxe izapidetuko dira:

Instrukzioaz arduratzen den organoak ezarri diren eta pertsona edo erakunde onuradun gertatzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du.

Eskabideak behar bezala beterik ez badaude edo deialdietan aipaturiko agiriak erantsita ez badituzte, eskabidea aurkeztu duen enpresari agindeia egingo zaio instrukzioaz arduratzen den organoak jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasiko den hamar (10) asteguneko epean akatsa konpon dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan; eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela uste izango dela berariaz emango den ebazpenaren bitartez, 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, organo instruktoreak aurkeztu diren eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen dituen agiri edota argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskabidea aurkeztu duten erakunde eskatzaileei.

### Artículo 33- Instrucción del expediente

La instrucción de los expedientes de solicitudes se realizará del siguiente modo:

El órgano instructor comprobará el cumplimiento de los requisitos establecidos para adquirir la condición de persona o entidad beneficiaria.

Recibidas las solicitudes, si éstas no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación que las distintas convocatorias establezcan, el órgano instructor requerirá a la entidad solicitante para que, en el plazo de diez (10) días hábiles, contados a partir del día siguiente en que tenga lugar la notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de la correspondiente solicitud mediante resolución dictada al efecto, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 21 y 68 de la Ley 39/2015.

En todo caso, el órgano instructor podrá requerir a las entidades solicitantes, cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de la solicitud presentada.

### 34. artikulua- Eskabideen ebaluazioa

Eskabideak ebaluatuko dituen erakundeak behin betiko ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek ez die inolako eskubiderik emango proposamen horretan bertan onuradun ageri diren pertsonei edo erakundeei.

### Artículo 34- Evaluación de solicitudes

Las solicitudes serán evaluadas por el órgano instructor que elaborará la correspondiente propuesta de resolución definitiva, la cual no creará derecho alguno a favor de las personas o entidades que figuren en dicha propuesta como

beneficiarias.

35. artikulua- Ebazpen proposamena

Ebaluazioa egindakoan organo instruktoreak egiaztatuko du eskaera egin duen pertsonak edo erakundeak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, baina aurretik eskabidea egin behar zaio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari. Halaber, pertsona edo entitate eskatzailearen zerga egoeraren egiaztagiria eskatuko dio Ogasun eta Finantza Sailari.

Behin egiaztatuta, instrukzioaz arduratzen den organoak Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiari ebazpen proposamena igorriko dio.

36. artikulua- Aurrekontuaren muga

Aurreko artikuluan aipatutakoarekin bat etorriz, aurkeztutako eskabide guztietatik aurrekontu-partidan aurrekontuek ahalbidetzen dituzten bezain beste hautatuko dira.

37. artikulua- Ebazteko epea

Foru dekretu honen itzalpean aurkezten diren eskabideak ebazteko gehieneko epealdia 6 hilabetekoa izango da deialdi bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik.

Organo eskudunak, nolanahi ere, aurkeztutako eskabide guztientzako ebazpena eman behar du nahitaez. Ebazpenerako eta jakinarazpenerako epea amaitu bada eta aipatutako organoak ebazpena eman ez badu, administrazio-isiltasunaren ondorioz eskabideari gaitz iritzi zaiola ulertuko da, horrela xedatzen 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

38. artikulua- Ebazpena

Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak Ekonomi eta Lurralde

Artículo 35- Propuesta de resolución

Tras la evaluación, el órgano instructor comprobará el cumplimiento por parte de la persona o entidad solicitante de sus obligaciones con la Seguridad Social, previa solicitud a la Tesorería General de la Seguridad Social. Asimismo, solicitará del Departamento de Hacienda y Finanzas, certificación acreditativa de la situación fiscal de la persona o entidad solicitante.

Una vez efectuada la comprobación, el órgano instructor elevará a la Dirección General de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico la propuesta de resolución.

Artículo 36- Límite presupuestario

De las solicitudes presentadas únicamente podrán ser seleccionadas tantas como permitan las disponibilidades presupuestarias consignadas en la partida establecida al efecto.

Artículo 37- Plazo de resolución

El plazo máximo para la resolución de las solicitudes formuladas al amparo del presente Decreto Foral finalizará transcurridos 6 meses desde la finalización del plazo para presentar solicitudes a cada convocatoria.

Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme a lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 39/2015.

Artículo 38- Resolución

La Dirección General de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico elevará la propuesta de

Garapena Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen proposamena, eta hark ebatziko du dagokion foru aginduaren bidez.

Lehia erregimenean emango diren laguntzei dagozkien ebazpenak onartutako eta ukatutako laguntzak ekarriko ditu. Horrez gain, pertsona edo erakunde onuradun izateko foru dekretu honetan ezarri diren baldintza administratiboak eta teknikoak betetzen dituzten, baina deialdiari dagokion kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu izanagatik onartu ezin izan diren eskabideak ere ekarriko ditu. Aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera, eskaera bakoitzari esleitutako puntu-kopurua adieraziko da.

Diru-laguntza ematen duen ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, foru dekretu honetan edo dagokion deialdian xedatutakoa proiektuen izaera bereziari edo bestelako inguruabarrei egokitze aldera beharrezkoa irizten bazaio.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legearen 40. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betez.

Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak hamar (10) laneguneko epea du –jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita– baiezkoa emateko. Epe hori amaitu eta interesdunek ez badute ezer adierazi, ebazpena onartu dela ulertuko da.

39. artikulua- Errekurtsoak

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko titularrari ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino

resolución a la persona titular del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, quien resolverá mediante la oportuna Orden Foral.

La resolución correspondiente a las ayudas que se resuelven en régimen de concurrencia competitiva contendrá, además de las ayudas concedidas y las denegadas, una relación ordenada de aquellas solicitudes que cumplen las condiciones administrativas y técnicas establecidas en el presente Decreto Foral para adquirir la condición de persona o entidad beneficiaria pero que no han sido estimadas por rebasarse la cuantía máxima del crédito correspondiente a la convocatoria de que se trate. Se indicará la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos.

En la resolución de otorgamiento, podrán establecerse condiciones particulares cuando, por la naturaleza específica de los proyectos u otras circunstancias concurrentes, se estime conveniente, con el fin de aplicar y adecuar a cada caso lo dispuesto en el presente Decreto Foral o en la normativa contemplada en la convocatoria correspondiente.

La resolución se notificará a las entidades interesadas, de acuerdo a lo previsto en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015.

Notificada la resolución, la persona o entidad beneficiaria dispondrá de un plazo para su aceptación, de diez (10) días hábiles contados a partir del día siguiente al que tenga lugar la notificación. Transcurrido dicho plazo sin haberse producido manifestación expresa, se entenderá tácitamente aceptada.

Artículo 39- Recursos

La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la persona titular del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, en el plazo de un (1) mes, a contar

lehen, 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

desde el día siguiente a aquel en que se reciba la notificación de la misma, en los términos que establece la Ley 39/2015.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da halako errekurtsoen bidezko jurisdikzioan jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi (2) hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupetu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz. Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la Jurisdicción Contencioso Administrativa, en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, en los términos contemplados por la Ley 29/1998 de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa. No será posible simultanear ambos recursos.

### 40. artikulua- Diru-laguntzari uko egitea

Onuradun gertatu diren pertsonetako edo erakundeetakoren batek diru-laguntzari uko egingo balio, diru-laguntza eskaintzen duen organoak zerrendan, puntu ordenari jarraiki, hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileei emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko kreditu nahikorik balego.

Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epean diru-laguntza proposamena onets dezaten. Epe hori, gainera, ezin izango da luzatu. Diru-laguntza eskatu duen pertsona edo erakundeek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organoak laguntza emateko egintza ezarri eta jakinarazpenak egingo ditu.

Uko egitea aurkezteko gehienezko epea hamar (10) laneguneko izango da, erakunde interesdunari diru-laguntza proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igaro ondoren, uko egitea diru-laguntza emateko arrazoi izan diren baldintzak ez-betetzea dela joko da.

### Artículo 40- Renuncia de la subvención

En caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas o entidades beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas o entidades solicitantes siguientes en orden de puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

El órgano concedente comunicará esta opción a las interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez días. Una vez aceptada la propuesta por las personas o entidades solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de diez (10) días hábiles desde la notificación de la propuesta de subvención a la entidad interesada. Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

### 41 artikulua: Jakinarazpen elektronikoa

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak interesdunei jakinarazpenak egitean, bide elektronikoak erabili beharko ditu, 39/2015

### Artículo 41: Notificación electrónica

Las notificaciones realizadas por parte del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo a lo previsto

Legearen 40. eta hurrengo artikuluen arabera.

Bitarteko elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.ebizkaia.eus) bertaratuz egin beharko dira, Administrazio Elektronikoari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduaren arabera (foru agindu hori jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa da).

en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015.

Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (https://www.ebizkaia.eus), de conformidad con lo establecido en en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica, así como en la Orden Foral de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales 4841/2016, de 6 de junio, sobre la práctica de las notificaciones y comunicaciones por medio del sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

# IV titulua: Diru-laguntzen kudeaketa eta egiaztapenari buruzko xedapen orokorrak

### 42. artikulua- Azpikontratazioa

Pertsona edo erakunde onuradun batek azpikontratazioa egin duela ulertuko da diru-laguntzaren xedea den jarduera zati batez edo osorik egitea beste norbaitekin kontratatzen duenean. Kontzeptu honetatik kanpo geratuko da pertsona edo erakunde onuradunak berak bakarrik diruz lagundutako jarduera egiteko dauzkan gastuak kontratatzea. Ondorioz, makinak, ekipamendua eta material suntsigarriak erostea, diruz lagundutako jardueraren barruan lan zehatzak egiteko kanpoko zerbitzuak kontratatzea, eta diruz laguntzen den jardueraren beste gastu osagarri batzuk egitea ez da azpikontrataziotzat joko.

Diruz laguntzen diren zerbitzu edo proiektuetako jardueren % 100eraino azpikontratatu ahalko da, baldin eta 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatzen badira.

# Título IV: Disposiciones generales sobre la gestión y justificación de las subvenciones

### Artículo 42- Subcontratación

Se entiende que una persona o entidad beneficiaria subcontrata cuando concierta con terceras entidades o personas la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. Queda fuera de este concepto la contratación de aquellos gastos en que tenga que incurrir la persona o entidad beneficiaria para la realización por sí misma de la actividad subvencionada. En consecuencia no se entenderá como subcontratación la adquisición de maquinaria, equipamiento y material fungible, la contratación de servicios externos para realización de tareas particulares dentro de la actividad objeto de subvención y otros gastos auxiliares a la actividad objeto de la subvención.

Se podrá subcontratar hasta el 100% de las actividades que integren los servicios o proyectos subvencionados siempre y cuando se respeten los requisitos y prohibiciones establecidos en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005.

4/2005 Legean eta 4/2018 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, diru-laguntzaren xedea gauzatzeko agindua jasotzen duten erakundeek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, bere lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

Las entidades a las que se les encomiende la ejecución del objeto de la subvención, de conformidad con lo previsto en la Ley 4/2005 y Norma Foral 4/2018 respetar los principios generales previstos en las mismas, deberán adecuar las estadísticas que formen parte de su trabajo a una perspectiva de género, deberán realizar un uso no sexista del lenguaje y deberán garantizar una representación equilibrada entre mujeres y hombres en la comisión y equipos de trabajo que se constituyan.

Diru-laguntzaren erakunde onuradunak diru-laguntzari dagokion jardueraren zati bat hirugarrenekin ituntzen dituenean, jarduera diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20 baino gehiago bada eta, gainera, azpikontratazioaren prezioa 60.000 euro baino gehiagokoa bada, erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu beharko dio azpikontratazio hori egin ahal izatea; horretarako, haren baldintza nagusiak eta zein erakunderekin itundu den jarduera burutzea adierazi beharko dira.

Cuando la entidad beneficiaria de la subvención concierte con terceras personas o entidades la ejecución de una parte de la actividad que constituye el objeto de la subvención y dicha actividad exceda del 20% del importe de la subvención, y, además, la subcontratación lo sea por un precio superior a 60.000 euros, la entidad beneficiaria deberá solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia que le autorice la celebración de dicha subcontratación, a cuyo efecto deberá indicar las principales condiciones de la misma, así como la entidad con la que concertará la ejecución de la actividad.

Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak ebatziko du eskabidea, hamabost (15) eguneko epean. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ezean eskabideari ezetsi zaiola pentsatuko da.

Esta solicitud será resuelta mediante resolución de la persona titular de la Dirección General de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico en un plazo de quince (15) días, entendiéndose desestimada para el supuesto en que no se haya resuelto expresamente al término de dicho plazo.

### 43. artikulua- Eskaintza aukeratzea

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean kontratuak txikitzat hartzeko finkatzen diren zenbatekoa (40.000 eurotik beherakoa, obra-kontratuak badira eta 15.000 eurotik beherakoa, hornitze- edo zerbitzu-kontratuak badira) baino gehiagokoa bada, pertsona onuradunak hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok

### Artículo 43- Elección de ofertas

